

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **1166/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, nekazaritza-ustiategien egituraren inguruko inkestei eta nekazaritzako ekoizpen-metodoen inguruko inkestari buruzkoa, eta Kontseiluaren 571/88/EEE Erregelamendua indargabetezkoa.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:
«*REGLAMENTO (CE) N° 1166/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 19 de noviembre de 2008, relativo a las encuestas sobre la estructura de las explotaciones agrícolas y a la encuesta sobre los métodos de producción agrícola y por el que se deroga el Reglamento (CEE) no 571/88 del Consejo*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 321 de 01/12/2008*)

1166/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko azaroaren 19koa,

nekazaritza-ustiategien egituraren inguruko inkestei eta nekazaritzako ekoizpen-metodoen inguruko inkestari buruzkoa, eta Kontseiluaren 571/88/EEE Erregelamendua indargabetzekoa.

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽¹⁾ araututako prozeduraren arabera,

alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 571/88/EEE Erregelamendua, 1988ko otsailaren 29koak, nekazaritza-ustiategien egituraren inguruan Europan inkestak antolatzeari buruzkoak ⁽²⁾, Europan inkestak egiteko programa bat ezartzen du, eta hau du xede: nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko estatistikak egitea 2007. urtea bitartean.

(2) Nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko inkesta-programa —1966/1967 epealdiaz geroztik egiten da Erkidegoa oinarri hartuta— betetzen jarraitu behar da, Erkidegoko joerak nolakoak diren aztertzeko. Argitasuna lortze aldera, Erregelamendu honek ordeztu behar du 571/88/EEE Erregelamendua.

(3) Nekazaritza-ustiategien oinarriko erregistroak eguneratzeko eta laginketa bidezko inkestak sailkatzeko beharrezkoa den gainerako informazioa eguneratzeko, ezinbestekoa da Erkidegoko nekazaritza-ustiategien errolda egitea, gutxienez, hamar urtean behin. Erregelamendu hau onartu aurretik, 1999/2000 epealdian egin zen azken errolda.

(4) Ezinbestekoa da landa-garapenarekin zerikusia duten neurrien aplikazioari buruzko datuak biltzea. Neurri horiek Kontseiluaren 1698/2005/EE Erregelamenduari jarraiki —2005eko irailaren 20koa— hartutakoak dira, eta (FEADER) Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtzaren bidez landa-garapenerako laguntzari buruzkoa da ⁽³⁾.

(5) 2006ko abenduaren 19an emandako ondorioetan —nekazaritza eta ingurumenaren inguruko adierazleei buruzkoak—, Kontseiluak adierazi zuen nekazaritza-jarduerei buruzko datu konparagarriak behar zituela, horretarako eremu geografikoa behar bezala antolatuta eta Erkidego osoa barne hartzen dela. Kontseiluak Batzordeari eskatu zion 2006ko irailaren 15eko Batzordearen Jakinarazpenean xedatutako ekintzak abian jartzeko ⁽⁴⁾; ekintza horietako bat estatistika-datuak biltzea da, bereziki, nekazaritza-kudeaketako jardunbideei eta nekazaritza-sargaien erabilerari buruzkoak.

(6) Ustiategi guztien nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko estatistika-informazioa falta da. Hortaz, ezinbestekoa da nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko datuak hobeto biltzea, nekazaritza-ustiategien inguruko egiturari buruzko informazioarekin zerikusia dutenak. Horrela, nekazaritza eta ingurumeneko politikak sustatze aldera eta nekazaritza eta ingurumeneko adierazleen kalitatea hobetze aldera, estatistika osagarriak egiteko.

(7) Nekazaritza-ustiategien egiturari buruz estatu kideek egindako estatistika konparagarriak edukitzea garrantzitsua da, nekazaritza-politika Erkidegoan nola gauzatu erabakitzeko. Horrela, bada, ahal den neurrian, sailkapen eta definizio bateratuak erabili beharko lirake inkestetan.

(1) Europako Parlamentuaren 2008ko maiatzaren 21eko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 20an hartutako Erabakia.

(2) L 56 EO, 1988.3.2koa, 1. or.

(3) L 277 EO, 2005.10.21ekoa, 1. or.

(4) Hau da izenburua: «Nekazaritza eta ingurumeneko adierazleak ezartzea, ingurumenari buruzko iritziak nekazaritza-politika bateratuan integratzeko lanaren inguruan jarraipena egiteko».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(8) Nekazaritza-egiturei buruzko inkestak 2010. urtean aplikatzeak eta hamar urtean behin egin beharreko errolda 2011. urtean aplikatzeak zama handia eragingo luke estatu kideen estatistika-bitartekoetan, bi inkesta handi horiek egiteko landa-lanak batera egin beharko balira. Beraz, salbuespen bat ezarri behar da, estatu kideek ustiatuegi egiturari buruzko inkesta 2009. urtean egin ahal izan dezaten.

(9) Kontseiluaren 322/97/EE Erregelamendua, 1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikari buruzkoa ⁽¹⁾, da Erregelamendu honetan ezarritako xedapenen erreferentzia-markoa; batez ere, inpartzialtasunari, fidagarritasunari, egokitasunari, errentagarritasunari eta estatistika-sekretuari buruzko estandarrak errespetatzeari dagokionez. Kontseiluaren 1588/90/EEE (Euratom) Erregelamendua da, 1990eko ekainaren 11koa, estatistika-sekretuak babestutako informazioak Europako Erkidegoko Estatistika Bulegora bidaltzeari buruzkoa ⁽²⁾, erreferentzia-markoa Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki eman beharreko estatistika-datu konfidentzialak bidaltzeko eta horiek babesteko; izan ere, bermatu nahi da ez dela legearen aurkako ezagutarazte-ekintzarik egingo eta estatistiketarako soilik erabiliko direla informazio horiek Erkidegoan, estatistikak egiten direnean eta horiek ezagutzera ematen direnean.

(10) Nekazaritza-ustiatuegiaren kokapenari buruzko informazioa estatistika-azterketak egiteko soilik erabiliko du Batzordeak, eta ez du erabiliko laginketak egiteko edota inkestak osatzeko. Datuen konfidentzialtasunak beharrezkoa duen babesa bermatu behar da, besteak beste, kokapenari buruzko parametroen inguruko zehaztasunak mugatuta eta behar bezala erantsita estatistikak argitaratzerakoan.

(11) Kontseiluaren 3037/90/EEE Erregelamenduak ⁽³⁾ ezarri zuen Erkidegoan ekonomia-jarduerei buruzko estatistiketarako nomenklatura.

(12) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1059/2003/EE Erregelamenduaren arabera —2003ko maiatzaren 26koa, estatistikako lurralde-unitateen nomenklatura bateratua (NUTS) ⁽⁴⁾ ezarri zuena—, lurralde-erakundeak NUTS sailkapenari jarraiki definitu beharko dira.

(13) Laginketa bidezko inkestak eta administrazio-iturriak erabiltzeko aukera aurreikusi behar da, datu-bilketak eragiten duen lana ahalik eta gehien arintzeko inkestagileei eta estatu kideei.

(14) Inkestak egiteak aurrekontuetatik bitarteko handi samarrak zenbait urtez erabili behar izatea eragingo die estatu kideei eta Batzordeari, eta horietako asko Erkidegoaren beharrei aurre egiteko.

(15) Begi-bistakoa da satellite bidezko nekazaritza-ustiatuegiaren kokapenari eta identifikazioari buruzko betebeharrak arazo metodologiko eta tekniko handiak eragingo dituztela estatu kide askotan.

(16) Hortaz, komeni da Erkidegoak laguntzaren bat xedatzea Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren bitartez, 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren 1290/2005/EE Erregelamenduak, nekazaritza-politika bateratua finantzatzeari buruzkoak, araututakoari jarraiki ⁽⁵⁾.

(17) Erregelamendu honek finantza-laguntza bat ezartzen du programak irauten duen epealdi guztirako, eta aurrekontuak onartzeko eskumena duen agintariarentzat lehentasunezko erreferentzia da urteko aurrekontu-prozeduraren esparruan, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinaz eta finantza-kudeaketa onaz 2006ko maiatzaren 17an egindako Erakundearteko Akordioaren 37. puntuari jarraiki ⁽⁶⁾.

(18) Erregelamendu honen helburua zein den kontuan hartuta —nekazaritza-ustiatuegiaren egiturari buruz eta nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko estatistikak sistematikoki egitea Erkidegoan — estatu kideek ezin dute behar bezala bete helburu hori, eta, beraz, erregelamendu honen norainokoa eta ondorioak direla eta, hobeto lor daiteke Erkidego-mailan; horrenbestez, Erkidegoak neurriak hartzeko aukera du, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erregelamendu honek ez du helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

(1) L 52 EO, 1997.2.22koa, 1. or.

(2) L 151 EO, 1990.6.15ekoa, 1. or.

(3) L 293 EO, 1990.10.24koa, 1. or.

(4) L 154 EO, 2003.6.21ekoa, 1. or.

(5) L 209 EO, 2005.8.11koa, 1. or.

(6) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(19) 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian ezarritakoaren arabera onartuko dira Erregelamendu hau betetzeko behar diren neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko ⁽⁷⁾.

(20) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea abere-buruei dagozkien koefizienteak erabaki ditzan, bai eta horiei dagozkien ezaugarriak ere eta, halaber, Erregelamendu honen eranskinak egokitu ditzan. Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero —funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz—, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(21) Kontsulta egin zaio Nekazaritza Estatistikako Komite Iraunkorrari, Kontseiluaren 72/279/EEE Erabakiaren bidez eratua bera ⁽¹⁾.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Xedea

Erregelamendu honek esparru bat ezarri du nekazaritza-ustiategien egiturari buruz Erkidegoan estatistika konparagarriak egin daitezzen eta nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko inkesta bat egin dadin.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan, hitz hauek definizio hau dute:

a) «nekazaritza-ustiategi» edo «ustiategi»: unitate bakarra ikuspuntu tekniko eta ekonomikotik, kudeaketa bakarra duena, eta I. eranskinean zerrendatutako nekazaritza-jarduerak egiten dituen Europa Batasunaren lurralde ekonomikoan, jarduera nagusi edo bigarren gisa;

b) «abere-buruak»: neurri-unitate konbentzionala, zenbait azienda-kategoria biltzeko balio duena, konparazioak egiteko beren artean. Abere-buruak animalia-kategoria bakoitzak dituen elikadura-beharrak oinarri hartuta definitzen dira; horretarako, koefizienteak egokitu egingo dira, 15. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki;

c) «laginketa bidezko inkestak»: sailkatutako ausazko laginketa oinarri duten estatistika-inkestak, nekazaritza-ustiategiei buruz eskualdeetako eta estatu-estatu estatistika adierazgarriak lortzeko eginak. Sailkapenak bere baitan hartuko ditu nekazaritza-ustiategiaren tamaina eta mota, hainbat tamainatako eta motatako nekazaritza-ustiategiak behar bezala adierazten direla bermatzeko;

d) «eskualde»: NUTS 2 mailako lurralde-unitatea, 1059/2003/EE Erregelamenduan definitzen denez;

e) «ustiategiaren kokapena»: latitude- eta longitude-koordinatuak, bost minutuko arku batean, ustiategi jakin bat zehatz-mehatz non dagoen jakitea eragozteko. Latitude eta longitude jakineko lokalizazio batean nekazaritza-ustiategi bakarra badago, hori ondoko beste kokapen bati erantsiko zaio, gutxienez nekazaritza-ustiategi bat duen beste bati.

3. artikulua

Eremua

1. Erregelamendu honetan zehaztutako inkestek eremu hauek hartuko dituzte:

(7) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

(1) L 179 EO, 1972.8.7koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) nekazaritzarako azalera erabilgarria hektarea batekoa edo handiagokoa duten nekazaritza-ustiategiak;
 - b) nekazaritzarako azalera erabilgarria hektarea batekoa baino txikiagoa duten nekazaritza-ustiategiak, baldin eta saltzeko kopuru jakin bat ekoizten badute edota ekoizpen-unitateak zenbait kopuru-muga fisiko gainditzen baditu.
2. Dena dela, hektarea bat baino gehiagoko muga erabiltzen duten estatu kideek beste muga bat ezartzerakoan, kontuan hartu behar dute ustiategi txikiak soilik geratuko direla kanpo; hau da, orokorrean, nekazaritzarako azalera erabilgarri guztiaren %2 edo gutxiago utzi ahal izango dira kanpo —lur komuna kontuan hartu gabe—, eta abere-buru kopuru guztiaren %2 edo gutxiago.
3. Nolanahi ere, II. eranskinean adierazitako kopuru-muga fisikoren batera iristen diren nekazaritza-ustiategi guztiak sartzen dira.

4. artikulua

Informazio-iturriak

1. Estatu kideek erabiliko dituzte: kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren sistemako informazioa, 1782/2003/EE Erregelamenduan xedatutakoa ⁽¹⁾; behiak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema, 1760/2000/EE Erregelamenduan xedatutakoa ⁽²⁾; eta ustiategi ekologikoen erregistro-sistema, 834/2007/EE Erregelamenduan xedatutakoa ⁽³⁾; baldin eta informazioa, gutxienez, estatistika-inkesten bidez lortutako informazioaren kalitate berekoa bada. Estatu kideek, halaber, administrazio-iturriak ere erabil ditzakete: batetik, genetikoki eraldatutako laborantzekin lotura dutenak; eta, bestetik, III. eranskinean adierazitako landa-garapenerako neurri espezifikoekin lotura dutenak.
2. Estatu kideren batek 1. paragrafoan aipatu ez den beste administrazio-iturriren bat erabiltzea erabakitzen badu, aurretik jakinaraziko dio Batzordeari, eta erabilitako metodoari buruzko xehetasunak eta administrazio-iturri horretatik bildutako datuen kalitateari buruzko xehetasunak emango dizkio.

5. artikulua

Zehaztasun-baldintzak

1. Laginketa bidezko inkestak egingo dituzten estatu kideek bermatu behar dute inkestako emaitza ponderatuen bidez adieraziko direla eskualde bakoitzeko nekazaritza-ustiategiak estatistikoki, eta emaitza horiek IV. eranskinean ezarritako zehaztasun-baldintzak beteko dituztela.
2. Behar bezala justifikatutako kasuetan, Batzordeak baimena emango die estatu kideei salbuespenak aplikatzeko zehaztasun-baldintzetan, 1. paragrafoan eskualde jakin batzuentzat adierazitakoei.

II. KAPITULUA

NEKAZARITZA-USTIATEGIEN EGITURARI BURUZKO ESTATISTIKAK

6. artikulua

Ustiategien egiturari buruzko inkestak

1. 2010., 2013. eta 2016. urteetan, estatu kideek nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko inkestak egingo dituzte (aurrerantzean, «ustiategien egiturari buruzko inkestak»).
2. 2010. urteko ustiategien egiturari buruzko inkesta errolden bidez egingo da. Nolanahi ere, laginketa bidezko inkestak erabili ahal izango dira irabazitzeko eskulaneko beste jarduera batzuen ezaugarrietarako; horiek III. eranskinean, V. atalean, ii) tartekian zerrendatuta daude.
3. 2013. eta 2016. urteetako ustiategien egiturari buruzko inkestak laginketa bidezko inkesten bidez egin ahal izango dira.

(1) Kontseiluaren 1782/2003/EE Erregelamendua, 2003ko irailaren 29koa, nekazaritza-politika bateratuaren esparruko zuzeneko laguntza-erregimenetan aplikagarriak diren xedapen komunak ezartzen dituen eta nekazariarentzako laguntza-erregimen jakinak ezartzen dituena (L 270 EO, 2003.10.21ekoa, 1. or.).

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1760/2000/EE Erregelamendua, 2000ko uztailaren 17koa, behi-espezieko animaliak identifikatzeko eta erregistratzeko eta behi-haragiari eta behi-haragitik eratorritako produktuei etiketak jartzeko sistema ezarri zuena (L 204 EO, 2000.8.11koa, 1. or.)

(3) Kontseiluaren 834/2007/EE Erregelamendua, 2007ko ekainaren 28koa, produktu ekologikoen ekoizpen eta etiketatzeari buruzkoa eta 2092/91/EEE Erregelamendua indargabetzen duena (L 189 EO, 2007.7.20koa, 1. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

7. artikulua

Inkestaren ezaugarriak

1. Estatu kideek informatu egingo dute III. eranskinean zerrendatutako ezaugarriei buruz.
2. Batzordeak III. eranskinean adierazitako ezaugarrien zerrenda aldatu ahal izango du, 2013. eta 2016. urteetako ustiatzearen egiturari buruzko inkestetarako, 15. artikuluan, 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki.
3. Estatu kideren batek erabakitzen badu ezaugarri batek prebalentzia txikia edo nulua duela, ezaugarri hori kendu ahal izango du datuak biltzeko zerrendatik. Estatu kideak inkesta egin aurreko urte naturalaren joanean jakinaraziko dio Batzordeari, datuak biltzeko zerrendatik ezaugarriren bat kentzen badu.
4. 15. artikuluan 2. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera ezarriko dira ezaugarrien definizioak.

8. artikulua

Erreferentzia-aldiak

2010., 2013. eta 2016. urteetako nekazaritza-ustiatzei buruzko inkestetarako erreferentzia-aldiak hauek dira:

- a) III. eranskinean zehaztutako luraren ezaugarrietarako, hamabi hileko epea, eta inkesta egin beharreko urtearen martxoaren 1etik urriaren 31 arteko egun jakin batean amaitutako da erreferentzia-aldia.
- b) III. Eranskinean zehaztutako azientaren ezaugarrietarako, inkesta egin beharreko urtearen martxoaren 1etik urriaren 31 arteko egun jakin batean amaitutako da erreferentzia-aldia;
- c) III. eranskinean zehaztutako eskulanaren ezaugarrietarako, hamabi hileko epea, eta inkesta egin beharreko urtearen martxoaren 1etik urriaren 31 arteko egun jakin batean amaitutako da erreferentzia-aldia;
- d) III. eranskinean zehaztutako landa-garapeneko neurrietarako, hiru urteko epea, eta inkesta egin beharreko urtearen abenduaren 31 izango da azken eguna.

9. artikulua

Datu-bidalketa

1. 2010. urteko ustiatzearen egiturari buruzko inkestako datu baliozkotutakoak 2012. urteko martxoaren 31 baino lehen bidaliko dizkiete estatu kideek Batzordeari.
2. 2013. eta 2016. urteetan ustiatzei izango duten egiturari buruzko inkestei dagokienez, inkesta egin den urtearen amaieratik kontatzen hasita, hamabi hileko epean bidaliko dizkiete inkestako datu baliozkotutakoak estatu kideek Batzordeari.
3. III. eranskinean aipatzen diren landa-garapeneko neurriei buruzko datuak, administrazio-espedituetan oinarritutakoak, bereizita bidali ahal izango zaizkio Batzordeari hamazortzi hileko epean, inkesta egin den urtearen amaieratik kontatzen hasita.
4. Ustiatzearen egiturari buruzko inkestaren datuak formatu elektronikoa jasoko dira, eta banakatuta bidaliko zaizkio Batzordeari, nekazaritza-ustiatzei bakoitzari erreparatuta.
5. Batzordeak erabakiko du zer formatutan bidali behar diren inkestako datuak.
6. Ustiatzearen egiturari buruzko inkestako datuak ezingo ditu erabili Batzordeak laginketak prestatzeko edota inkestak egiteko.

10. artikulua

Laginketa-esparrua

2013. eta 2016. urteetako ustiatzearen egiturari buruzko inkestetako laginketa-esparrua eguneratze aldera, estatu kideek eskuragarri jarriko dituzte, ustiatzearen egiturari buruzko inkestak egiteaz arduratzen diren agintarientzat, zeinek bere lurraldean egindako administrazio-espedituetan bildutako informazioa, nekazaritza-ustiatzei buruzkoa.

III. KAPITULUA

NEKAZARITZAKO EKOIZPEN-METODOEI BURUZKO ESTATISTIKAK

11. artikulua

Nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko inkesta

1. Nekazaritza-ustategietan erabiltzen dituzten nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko inkesta egingo dute estatu kideek. Inkesta hori laginketa bidez egin ahal izango dute.
2. Behar bezala justifikatutako kasuetan, Batzordeak baimena eman ahalko dio laginketa bidezko inkesta egingo duen estatu kideari bestelako azpilaginketak erabiltzeko.
3. Estatu kideek informatu egingo dute V. eranskinean zerrendatutako nekazaritzako ekoizpen-metodoen ezaugarriei buruz.
4. Inkesta egin den ustategi bakoitzeko, estatu kideek, halaber, ustategietan ureztatzeko erabili duten ur-bolumenaren gutxi gorabeherako bat ere adierazi behar dute (metro kubikotan). Gutxi gorabeherakoa ereduren baten bidez egin ahal izango da kalkulua.
5. Batzordeak metodologiaren inguruan eta bestelako inguruan lagunduko die estatu kideei, 4. paragrafoan adierazitako eredia osatze aldera. Horrezaz gain, estatu kideen artean beharrezko lankidetzaz izatea eta esperientziak elkarri trukatzeko sustatuko du Batzordeak, emaitza konparagarriak lortze aldera.
6. Estatu kideren batek erabakitzen badu ezaugarri batek prebalentzia txikia edo nulua duela, ezaugarri hori kendu ahal izango du datuak biltzeko zerrendatik. Estatu kide horrek Batzordeari jakinaraziko dio, inkesta egin beharreko aurretiko urte naturalaren joanean, datuak biltzeko zerrendatik ezaugarriaren bat kentzeko asmoa badu.
7. 15. artikuluan, 2. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera ezarriko dira ezaugarrien definizioak.
8. Erreferentzia-aldia 2010. urteko ustategien egiturari buruzko inkestako ezaugarrietarako adierazitako bera izango da.
9. Inkesta horretako emaitzak alderatu egingo dira 2010. urteko ustategien egiturari buruzko inkestan bildutako datuekin; nekazaritza-ustategi bakoitzeko alderatutako dira datuak. Datu baliozkotu guztiak formatu elektronikoan bidaliko dizkiete Batzordeari, 2012. urteko abenduaren 31 baino lehen.
10. Batzordeak erabakiko du zer formatutan bidali behar diren inkestako datuak.
11. Nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko datuak Batzordeak ezin izango ditu erabili laginketak prestatzeko edota inkestak egiteko.

IV. KAPITULUA

TXOSTENAK, FINANTZIAZIOA ETA APLIKAZIO-NEURRIAK

12. artikulua

Txostenak

1. Estatu kide orok, Erregelamendu honetan xedatutako inkestei dagokienez, nor bere estatuko metodologiari buruzko txostenak egin behar ditu; hona hemen txosten horietan deskribatu beharrekoa:
 - a) antolaketa eta aplikatutako metodologia;
 - b) Erregelamendu honetan adierazitako laginketa bidezko inkestekin lortutako zehaztasun-mailak;
 - c) administrazio-iturrietatik eskuratu eta erabilitako datu guztien kalitateari buruzko informazioa; eta
 - d) 3. artikuluan eremuari buruz xedatutako baldintzak betetze aldera, kontuan hartzeko eta kanpo uzteko aplikatutako irizpideak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Batzordeari aurkeztuko zaio metodologiari buruz nork bere estatuan egindako txostena, inkestako emaitza baliozkotuekin batera eta 9. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako epeetan.

3. Egindako inkesta bakoitzeko nork bere estatuko metodologiari buruzko txostena egiteaz gain, estatu kideek beharrezkoa izan daitekeen gainerako informazio osagarri guztia jakinaraziko diote Batzordeari, inkestaren antolaketa eta metodologiari buruzkoa bada.

13. artikulua

Erkidegoaren laguntza

1. Estatu kideek, Erkidegoak emanda, Erregelamendu honetan xedatutako inkestak egiteko diru-laguntzak jasoko dituzte; inkestak egiteak eragindako gastuaren %75, gehienez, jasoko dute. Gehieneko diru-kopuruak 3. eta 4. paragrafoetan adierazten dira.

2. Erregelamendu hau indarrean sartu ondoren, Batzordeak lagundu egingo die horren inguruko eskaera egiten duten estatu kideei; nekazaritza-ustiategiak satellite bidez kokatzearekin zerikusia duen orotan beharrezkoa duten babesa eta laguntza teknikoak izango dute.

3. 2010eko ustiategien egiturari buruzko inkestak eta nekazaritzako ekoizpen-metodoei buruzko inkestak eragindako kostu bateraturako, Erkidegoak gehieneko zenbateko hauek ditu: — 50. 000 EUR Luxenburgorentzat eta Maltarentzat;

— 1. 000. 000 EUR Austriarentzat, Irlandarentzat eta Lituaniarentzat;

— 2. 000. 000 EUR Bulgariarentzat, Alemaniarentzat, Hungariarentzat, Portugalentzat eta Erresuma Batuentzat;

— 3. 000. 000 EUR Greziarentzat, Espainiarentzat eta Frantziarentzat;

— 4. 000. 000 EUR Italiarentzat, Poloniarentzat eta Errumaniarentzat; eta

— 300. 000 EUR gainerako estatu kide bakoitzarentzat.

4. 2013. eta 2016. urteetako ustiategien egiturari buruzko inkestetarako, 3. paragrafoan adierazitako gehieneko zenbateko horiek %50 gutxituko dira.

5. Erkidegoak emango duen diru-laguntza, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsekoa da, 1290/2005/EE Erregelamenduaren 3. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian ezarritakoari jarraiki.

14. artikulua

Finantza-esparrua

1. Inkesten programa gauzatzeko finantza-laguntza, estatu kideek emandako informazioa tratatzeko —Erregelamendu honek ezarritakoari jarraiki— Batzordean erabiltzen diren datu-baseen sistemak kudeatzeko, sistemen mantentze-lanak egiteko eta horiek garatzeko beharrezkoak diren kredituak barne, 58. 850. 000 EUKOKOA izango da 2008-2013 epealdirako.

2. Aurrekontuak eta legeak onartzeko eskumena duten agintariak erabakiko dute 2014-2018 epealdirako zenbatekoa, Batzordeak egindako proposamen baten bidez; 2014. urtean hasiko den epealdirako finantza-esparru berria hartuko du oinarri Batzordeak proposamena egiteko.

3. Aurrekontua onartzeko eskumena duen agintariak baimenduko ditu urteko kredituak, finantza-esparruaren mugetarako egokituta.

15. artikulua

Komitearen prozedura

1. Nekazaritza-estatistikako Komite Iraunkorrak aholkatuko du Batzordea, 72/279/EEE Erabakiari jarraiki eraturakoak.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta haren 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

16. artikulua

Salbuespenak

1. 6. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan, 8. artikuluan, 9. artikuluko 1. paragrafoan, 11. artikuluko 8. eta 9. paragrafoetan, 13. artikuluko 3. paragrafoan, III. eranskinean eta IV. eranskinean ezarritakoak gorabehera, 2010. urteari egindako erreferentziak ordeztu egingo dira eta 2009. urtea jarri, Grezia, Espainia eta Portugal herrialdeentzat.

2. 9. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, 2012ko martxoaren 31 erreferentzia hauek ordeztuko dute:

a) 2011ko martxoaren 31, Grezia eta Portugal herrialdeen kasuan;

b) 2011ko ekainaren 30a, Espainia herrialdearen kasuan;

c) 2012ko ekainaren 30a, Italia eta Errumania herrialdeen kasuan.

3. 11. artikuluko 9. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, 2012ko abenduaren 31 erreferentzia ordeztu egingo da 2011ko abenduaren 31 erreferentziarekin, Grezia, Espainia eta Portugal herrialdeen kasuan.

17. artikulua

Indargabetzea

1. 571/88/EEE Erregelamendua indargabetu egin da.

2. Indargabetutako Erregelamenduari eginiko erreferentziei dagokionez, Erregelamendu honen erreferentziatzat hartuko dira.

18. artikulua

Indarrean sartzea

Araudi hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar eguneko epean sartuko da indarrean.

Erregelamendu hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.

Araudi hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria H.-G. PÖTTERING.

Kontseiluaren izenean Lehendakaria J.-P. JOUYET

ANEXO I

Lista de actividades agrarias a las que se refiere la definición de explotación agrícola

Las actividades siguientes (que pueden ser primarias o secundarias) se basan en la división de la nomenclatura estadística de actividades económicas en la Comunidad Europea (NACE, rev. 2) «Agricultura, ganadería, caza y servicios relacionados con las mismas», y se utilizan para definir a una explotación agrícola:

Descripción de la actividad	Código NACE rev. 2	Notas adicionales sobre las actividades que se incluyen o se excluyen al definir las actividades agrarias
Cultivos no perennes	01.1	
Cultivos perennes	01.2	Las explotaciones agrícolas que producen vino o aceite de oliva a partir de uvas o aceitunas de producción propia se incluyen en el ámbito de aplicación del presente Reglamento.
Propagación de plantas	01.3	
Producción ganadera	01.4	Todas las actividades de la clase 01.49 de la NACE, rev. 2 («Otras explotaciones de ganado»), se excluyen del ámbito de aplicación del presente Reglamento, excepto: i) la cría de avestruces, emús y conejos; ii) la apicultura y la producción de miel y cera de abeja.
Producción agrícola combinada con la producción ganadera	01.5	
Actividades de apoyo a la agricultura, a la ganadería y de preparación posterior a la cosecha	01.6	En general, todas las explotaciones que solo llevan a cabo actividades del grupo 01.6 de la NACE, rev. 2, se excluyen del ámbito de aplicación del presente Reglamento. Ahora bien, las explotaciones que solo se dedican a mantener la tierra en buenas condiciones agrarias y ambientales (clase 01.61 de la NACE, rev. 2) se incluyen en el ámbito de aplicación del presente Reglamento.

ANEXO II

